

BASABURUA

173. ALEA - 2024KO AZAROA

BASABURUKO UDAL BULETINA

ERREDAKZIOA: AMETZA



www.basaburuia.eus
udala@basaburuia.eus
948 50 30 35



ORDEZKAPENERAKO ZERREDAK

Garbiketa eta zerbitzu anitzetarako lanpostuen ordezkapenerako zerrendak osatu nahi ditu Udalak. Helburua da langileen zerrenda bat izatea egonkortze prozesuaren ondoren hutsik edo bete gabe gelditzen ahal diren lanpostuak betetzeko eta oporrak edo bajak ordezkatzeko. Zerrendak Larraungo, Imozko, Arakilgo eta Araizko udalekin partekatuko dira, udalen artean sinatutako hitzarmenari esker. Oinarriak onartu dira eta probei buruzko informazioa bando baten eta Enplegu Zerbitzuaren bidez zabalduko da.

LISTAS PARA SUSTITUCIONES

El Ayuntamiento quiere conformar listas para sustituciones en los puestos de limpieza y servicios múltiples. El objetivo es tener una lista de trabajadores/as por si después del proceso de estabilización de plazas quedara alguna vacante o plaza sin cubrir y para sustituciones como bajas o vacaciones. Las listas se compartirán con los ayuntamientos de Larraun, Imotz, Arakil y Aritz gracias al convenio firmado. Se han aprobado las bases y se informará sobre las pruebas mediante bando y el Servicio de Empleo.

KOMUNITATE ENERGETIKOAK ETA PLAKA KONPARTITUAK BULTZATZEKO SAIOAK

Basaburuko Udalak Komunitate Energetikoez eta energia autokontsumoaz informatzeko eta bultzatzeko prozesua abiatu zuen joan zen urtean. Orain prozesu horren bigarren fasea burutu du. Azaro osoan hiru saio antolatu ditu Goiener energia kooperatibaren laguntzarekin, besteak beste, faktura irakurtzen ikasteko, energia komunitateen edo plaka konpartituen proiektuak erakusteko eta hauen izaera juridikoa azaltzeko. Azaroaren 26an izanen da azkeneko saioa, 18:00etan Apeztegi berriko lehenengo solairuan.

Bestetik, prozesu honekin lotuta, Basaburuko Udalak eguzki plakak jartzeko lanak bultzatu zituen, eta horiek bukatu berri dira. Polikiroldegiaren teilatuan dagoen autokontsumo partekaturako azpiegitura da. Bertatik Jauntsaratsen dauden udal eraikinak hornituko dira, energiaren aprobetxamendua hobetuz. Obra hau Landa Garapenerako Programaren dirulaguntzarekin kofinantzatu da eta programa Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsek (LGENF) eta Nafarroako Gobernuak finantzatu dute.



SESIONES PARA IMPULSAR COMUNIDADES ENERGÉTICAS Y PLACAS COMPARTIDAS

El Ayuntamiento de Basaburua lanzó el pasado año un proceso para informar sobre las Comunidades Energéticas y el autoconsumo energético e impulsar proyectos de este tipo. Ahora, en una segunda fase de ese proceso, ha organizado varias sesiones en noviembre. Junto con la ayuda de la cooperativa energética Goiener, han servido para aprender a leer las facturas, para mostrar proyectos de comunidades energéticas y las posibilidades de compartir placas y explicar su composición jurídica. La última sesión será el 26 de noviembre a las 18:00 en la primera planta de Apeztegi berri.

Por otro lado pero en relación a este proceso, el Ayuntamiento de Basaburua ha impulsado precisamente una estructura para el autoconsumo compartido. Las obras, que acaban de terminar, han servido para colocar placas solares en el tejado del polideportivo destinadas a suministrar energía a los edificios municipales de Jauntsarats y mejorar el aprovechamiento de la energía. Estas obras han sido cofinanciadas por las ayudas del Programa de Desarrollo Rural a su vez financiado por el Fondo Europeo Agrario de Desarrollo Rural (FEADER) y el Gobierno de Navarra.

BASABURUTIK BARNA IMOTZ ETA ULTZAMA LOTZEKO SENDA

Cederna Garalur landa garapen agentziak sendak berritzeko proiektua jarri du martxan eta Basaburuko Udalak Ultzama eta Imotz lotzeko bidea osatu nahi du. Horretarako, bi tokitik luzatu nahi du bidea. Batetik, Erbititik Suarbera doana, Ultzamarekin lotuz (mapan, laranja eta gezi batez seinalatuta); eta, bestea, Ihabenetik Imotzera doana. Senda familien paseondako egokia da: laua eta eroso.



UNA SENDA PARA UNIR IMOTZ Y ULTZAMA A TRAVÉS DE BASABURUA

La agencia de desarrollo rural Cederna Garalur ha puesto en marcha un proyecto para renovar las sendas y sus señalizaciones y el Ayuntamiento de Basaburua quiere aprovechar para unir los valles de Imotz y Ultzama a través de Basaburua. Para ello va a proponer la extensión de la senda en dos puntos. Uno de ellos, hacia Ultzama, uniría Erbiti con Suarbe (en el mapa en naranja y señalado con una flecha). La otra extensión conectaría con Imotz desde Ihaben. La senda está especialmente dirigida a las familias porque es llana y fácil de transitar.

ZIRKULAZIO ZERGAN HOBARIAK, ABENDURA ARTE

Auto elektrikoek eta 0 isurketako ibilgailuen zirkulazio zerga %25 eta %50 murrizteko aukera dago, Basaburuko Udalak joan zen urtean onartutako ordenantzari esker. Hobariak eskatzeko epea urtearekin amaituko da, eta beraz urtarrila baino lehen egin beharko da. Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta informazio guztia udalaren webgunean, kodigo QRan.



Udal ordenantza/
Ordenanza municipal

BONIFICACIONES EN EL IMPUESTO DE CIRCULACIÓN HASTA FIN DE AÑO

Los coches eléctricos y los de 0 emisiones tienen la posibilidad de reducir el impuesto de circulación un 25% o un 50%, gracias a la ordenanza aprobada por el Ayuntamiento de Basaburua el pasado año. El plazo para pedir las bonificaciones acaba con el año y por tanto hay que pedir las bonificaciones antes de enero. Más información en la web del ayuntamiento, en el código QR.

EGUTEGIA/ CALENDARIO:

ABENDUA/ DICIEMBRE

			1				
2	3	4	5	6	7	8	
9	10	11	12	13	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	24	25	26	27	28	29	
30	31						

● EUSKARAREN EGUNA

● PILOTA GOXOKO
FINALA

● OLENTZERO ETA
MARI DOMINGI

OLENTZERO ETA MARI DOMINGI, JAISTEKO PREST

Menditik jaisteko prestatzen ari dira Olentzero eta Mari Domingi. Abenduaren 24an 18:00etan iritsiko dira Jauntsaratsera, eskolara, Basaburuko haur guztiei opariak eta gaztainak banatzeko.



OLENTZERO Y MARI DOMINGI, CASI LISTOS

Olentzero y Mari Domingi ya están casi listos para bajar del monte. Llegarán a Basaburua el 24 de diciembre a las 18:00. La cita será en la escuela donde repartirán los regalos y castañas.

MIMUKAI
Leitza % 100 Diruz lagunduta

**2024-2025 ikastaroak
EUSKARAZ**

1	LAN KONTRATAZIOA	2024/11/12 - 2024/11/28 Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (12 ordu)
2	EKINTZAILEENTZAKO MARKETING PLANA: MERKATURATZEA ETA SALMENTEN AURREKUSPENA	2025/01/14 - 2025/03/06 Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (32 ordu)
3	ENPRESAREN ZERGA KUDEAKETA	2025/03/11 - 2025/05/22 Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (42 ordu)
4	MARKETING ZUZENA ETA BEZEROEN FIDELIZAZIOA	2025/05/27 - 2025/06/26 Asteartea eta Osteguna 18:00-20:00 (27 ordu)

Landa Industrialdea, Sultzi 3, 1º, 31880, Leitza, Nafarroa. www.mimukai.eus

Izen emateak: comercialnavarra@rodola.com - 690 981 219

RODOLA ERRODOLAKO
SERBIZIOA
NARRAZI
NARRAZI

EKINTZAILEENDAKO ETA ENPRESA DUTENENDAKO PRESTAKUNTZA, DOAN

Enpresa bat sortu nahi duten ekintzaileentzako edo negozio bat dutenendako hainbat ikastaro izanen dira Leitza Mimukai zentro berrian eta %100 diruz lagunduta. Ekainera bitartean hiru dira antolatutakoak, besteak beste: Marketingaz eta salmentez, zergen kudeaketaz eta bezeroen fidelizazioaz arituko dira.

FORMACIÓN GRATUITA PARA EMPRENDEDORES O QUIENES TIENEN UNA EMPRESA

Mimukai, en Leitza, ha organizado varios cursos y talleres, 100% subvencionados para aquellas emprendedoras que quieren poner en marcha una empresa o que tienen un negocio. Son tres los que se han concretado hasta junio y allí se hablará, entre otros temas, de marketing y ventas, de la gestión de impuestos o de la fidelización de clientes.

EH Bildu ▶



MOZIOA / MOCIÓN:

A25a Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Egunarengatik onartutako adierazpenak / Declaraciones aprobadas por el 25N, Día Internacional Contra La Violencia Machista

NUKF/ FNMC ◀

